

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

1205

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 3koa, Farmaziako zuzendariarena, Urdulizko udalerrian (Bizkaia) farmazia-bulego bat sortzeko baimena emateko dena.

Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Záratek aurkeztutako eskabidea ikusi dugu, Urdulizko udalerrian (Bizkaia) farmazia-bulego bat sortzekoa. Hauek dira egitateak:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.— Osasuneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 29ko agindu baten bidez, Urdulizko farmazia-eremuan (2CUR02) Urdulizko udalerrian farmazia bat jartzeko prozeduraren hasiera iragarri zen.

Bigarren.— Farmazia horren titulartasuna eskuratzeko merezimenduak baloratzeko batzordeak, egin beharreko legezko izapideak egin ondoren, 2024ko apirilaren 16ko Erabakia hartu zuen, Sopelako farmazia-eremurako (Berangoko eta Urdulizko udalerriak) deialdian eskainitako farmaziak esleitzeko. Erabaki hartan, onartutako lehiakideen eta haien puntuazioaren arabera sailkapenaren behin betiko zerrenda onartu zen, eta 2024ko maiatzaren 3ko EHAAn argitaratu zen (86. zk.). Zerrenda horretan, Silvia Maeso de la Fuente lehiakideak zeukan puntuaziorik handiena.

Hirugarrena.— Farmaziako zuzendariak ofizio bat helarazi zion Silvia Maeso de la Fuente andeari 2024ko ekainaren 10ean, adierazteko ezen berak lortu zuela aurkeztutako merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena eta, ondorioz, 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa bete behar zuela (338/1995 Dekretua, ekainaren 27koa, Farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen). Ofizio horretan, gainera, ohartarazi zion eskatutako agiri guztiak xedapen horretan ezarritako epean aurkezten ez bazituen deialdian parte hartzeari uzten ziola esan nahiko zuela.

Laugarrena.— 2024ko irailaren 4an, Silvia Maeso de la Fuentek atzera egin zuen Sopelako farmazia-eremuko Urdulizko udalerrian farmazia-bulego baten titulartasuna eskuratzeko 2023ko maiatzaren 29ko Aginduen bidez deitutako prozeduran parte hartzeko egindako eskabidean. Ondorioz, 2024ko irailaren 13an, Farmaziako zuzendariak ebazpena eman zuen, Silvia Maeso de la Fuentek atzera egitea onartzeko, Urdulizko udalerrian (Sopelanako farmazia-eskualdea) 2023ko lehiaketari dagokion farmazia-bulegoa sortzeko prozeduran parte hartzeko egindako eskaerari dagokionez.

Bosgarrena.— Silvia Maeso de la Fuentek atzera egin ondoren, eta Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, modu berean jokatu behar da merezimendu-lehiaketan puntu gehien lortu dituen hurrengo farmazialariarekin. Hau da, Urdulizko udalerrian kokatu beharreko farmazia-bulegoa sortzeko baimena lortzeko behar den dokumentazioa aurkezteko eskatu behar zaio hurrengo horri. Horretarako, eta dekretu beraren 5.1 artikulua aplikatuz, 2024ko irailaren 13an modu berean jokatu zen bigarren tokian zegoen farmazialariarekin, Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Zaraterekin.

Seigarrena.— 2025eko urtarrilaren 9an, Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Záratek Urdulizko udalerrian farmazia bat (004-0609206) sortzeko baimena eskatu zuen, epe eta forma egokian, 338/1995 Dekretuaren babesean, eta, horrekin batera, dekretu horren 5. artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu zituen.

Aurkeztutako dokumentazioan ikus daitekeenez, farmazia-bulego berria jarri nahi den lokalaren kokapena honako hau da: Lehendakari Agirre kalea 2, beheko ezkerre, Urduliz udalerria (Bizkaia), Sopelako Osasun Eremua (2409) eta Sopelako farmazia-eremua (2CUR02).

Zazpigarrena.— 2024ko irailaren 13an, Farmaziako zuzendariaren ofizio baten bidez, espedientearen pertsonatzeko eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko esan zitzaizen espediente honetan interesdun izan zitezkeenei, 39/2015 Legearen 8. artikuluari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Gaur-gaurkoz, baina, inor ez da pertsonatu eta inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Zortzigarrena.— Azkenik, 2025eko martxoaren 3an, Farmazia Antolamenduko buruak aldeko txostena egin zuen Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Záratek aurkeztutako dokumentazioari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, Farmaziako zuzendariari dagokio eskabide hau ebaztea.

Bigarrena.— Batetik, Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Záratek izan du puntuaziorik handiena, Silvia Maeso de la Fuentek atzera egin ondoren; bestetik, Farmaziak sortzeko ezarritako prozedura dela-eta, 11/1994 Legearen 34. artikuluan jasotako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horretako 5. artikulua arabera, lehiakideak aurkeztu duen dokumentazio guztia eta erabilitako epeak egokiak direla egiaztatu da; horrenbestez, bidezkoa da farmazia-bulegoa sortzeko baimena ematea interesdunari.

Dena dela, emandako baimenak indarra izango badu, jarduteko baimena lortu beharko da, hala agintzen baitu 338/1995 Dekretuak 6. artikulua 4. apartatuan.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Silvia Maeso de la Fuenteri baimena ematea farmazia bat jartzeko Urdulizko (Bizkaia) Lehendakari Agirre kaleko 2. zenbakiko ezkerrean, Sopelako Osasun Eremuan (2409) eta Sopelako farmazia-eremuan (2CUR02), Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Zárate jaunari, aurkeztutako agirien arabera.

Bigarrena.— Baimen horrek balio izateko, dena dela, Gabriel Martínez de la Hidalga Ortiz de Záratek farmazia horretan jarduteko baimena lortu beharko du. Baimen hori eskatzeko, lau hilabete izango ditu, ebazpen hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik, eta 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera eskatu behar du.

Hirugarrena.— Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, eta jakinarazi, era berean, ebazpenak ez diola amaiera ematen administrazio-bideari, eta beronen aurka, egoki iritzitako bestelako errekursoez gain, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango dutela zuzendaritza honetan edo Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 3a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.